



**UNESCO ETXEKO
OHOREZKO BAZKIDEEN AHOLKU BATZORDEAREN VI. BIURTEKO TOPAKETA
2016ko ekainaren 14an, Bilbon
UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroaren 25. urteurrena**

Adierazpen instituzionala:

Garapen Iraunkorreko agenda bat Euskadirentzat eta munduarentzat

1. Gure mundua eraldatzea: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda.

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Erakundearen 70. urteurrena zela eta, Batzar Orokorrak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda¹ onartu zuen. Agenda berri hori Nazio Batuen baitan parekorik ez duen partaidetza-prozesu baten bitartez egin da, ezin konta ahala kontsulta, eztabaida, biltzar eta negoziazio-saioen bitartez.

UNESCO Etxeak ere aktiboki hartu du parte Garapen Iraunkorrerako Agenda berri hau definitzen. 1991n sortu ginenetik, konpromiso irmoa izan dugu giza garapen justu, bidezko eta jasangarri batekin. Nazio Batuekin lankidetzan aritu gara eta ekarpenak egin dizkiogu. Prestakuntzaren, sentsibilizazioaren, esku-hartzeen eta hedatzearen bitartez, euskal gizartea eta erakundeak Nazio Batuek eginiko ahalegin horren konplize eta partaide izan daitezten saiatu gara, eta, horretarako, hor egon gara beti nazioarteko eztabaidetan zein tokiko eta eskualdeetako egitasmoak identifikatuz eta abian jarritz.

Horrexegatik, gaur ere, munduko hitzaldi eta foroetan parte hartuz, euskal ikuspegia eta esperientziak ezagutarazi ditugu agenda bateratu, arduratsu, handi eta eraldatzaile hau definitze eta abiarazte aldera.

Horren emaitza inoiz ez bezalako irismena eta garrantzia duen agenda bat da. Nazio Batuen Gutunaren helburuetan eta printzipioetan dago oinarrituta, bereziki ideia hauetan: bakea, elkarrizketa eta nazioarteko lankidetzak. Gizarte-kontratu berri bat da; ekintza-plan ausart eta eraldatzailea, eta pertsonengan, planetan, oparotasunean, bakean eta aliantzetan zentratutakoa.

Agenda honek Milurtekoko Garapen Helburuen arlo teorikoa eta ekintza-arloa gainditu eta giza garapenaren paradigma berri bati forma eman nahi dio, eta herrialde garatuak zein garapen bidean dauden herrialdeak barne hartzen, desafiatzen eta konprometitzen

¹ Batzar Orokorraren Ebazpena, Gure mundua eraldatzea: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda A/RES/70/1 (2015eko urriaren 21a).



gaitu garapen iraunkorraren hiru dimentsioei dagokienez: ekonomia, gizartea eta ingurumena; horiek zuzendu beharko dituzte erabaki politikoak.

Agendaren egitura gure lan-arloekin estu lotutako 17 helbururen (Garapen Iraunkorreko Helburuak) eta 169 jomugaren inguruan banatzen da: hezkuntza, zientzia, komunikazioa, bakearen eta giza eskubideen kultura, demokrazia eta gobernantza parte-hartzailea.

Hala, garapen sozial eta ekonomikoa gure planetako baliabide naturalen kudeaketa iraunkorraren mende dagoela ikusita, ekintza-bide berri bat ireki da. Ildo horretatik, herrialde, lurralde eta gizarte bakoitzak bere erakunde, behar eta gaitasunen arabera interpretatu eta egokitu behar du plan orokor hori, eta munduko hitzarmen hau beren politiken edukia, forma eta koherentzia zeharka eta modu interdependentean orientatzeko baliatu behar du. Horretarako, ahalik eta lankidetzan handiena behar da, tokian tokikotik mundu-mailara doana, hain zuzen ere, gure munduaren eraldatze-prozesuari aurre egiteko gai izango dena.

Gure erabakien eta ekintzen mende dago gizarte iraunkor, baketsu, bidezko eta inklusiboen helburu bateratu hori lortzea. Horregatik guztiagatik, UNESCO Etxeak berretsi egiten du sustatu egin behar direla kulturen elkar-ulertzea, tolerantzia, elkarrenganako errespetua, herritarren balio etikoak eta erantzukizun partekatua. Horrez gain, berritu egiten dugu demokrazia- eta deszentralizazio-prozesuetan tokiko eragileekin parte hartzeko dugun konpromisoa, garapen endogenoa sustatzeko eta gizarteak aldaketa-eragile gisa indartu daitezen.

2. Agenda berriak ba al ditu berme nahikoak inor atzean ez uzteko?

Agenda honek berritzaile izateko asmoa badu ere, ahulgune batzuk ere baditu, eta horiei ez bazaie behar bezala heltzen, zail izango da Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) eta horien oinarriak lortzea.

Lehenik eta behin, kezkatuta gaude nazioarteko komunitateak benetako konpromiso falta duelako Agendarekin. Hori argi gelditu da, bereziki, Garapenerako Finantzaketari buruzko negoziazioetan, ez baitute akordio bateraturik lortu GIHak lortzeko behar diren baliabideak hornitzeko. 2030 Agenda benetan eraldatzailea izan dadin, ezinbestekoa da Agenda nazioarteko komunitatearen benetako ibilbide-orria izatea. Eta, horretarako, pauso bat aurrera eman eta benetako konpromiso ekonomiko global eta solido bat eskatu



behar da, dirua pertsonen zerbitzura egon dadin, eta ez alderantziz, “Garapenerako Armagabetzea” (International Peace Bureau) kanpainak proposatzen duen moduan.

Uste dugu Agendak ez dituela Giza Eskubideak modu solidoan eta unibokoan defendatzen eta babesten. Gure iritziz, 2030 Agendak honako hauei aurre egiteko tresna izan beharko luke: Europako eta mundu osoko krisia, errefuxiatuen eta migratzaileen drama, estremismoen gorakada, gatazka armatuak, xenofobia, arrazismoa eta homofobia. Joera horiek erakusten dute balio humanistak hauskorrak direla, eta agerian uzten dute Giza Eskubideak babesteko gaur egun dauden nazioarteko mekanismoak ez direla nahikoak justizia soziala zein herri eta pertsoneneskubideak bermatzeko.

G-7, G-8, G-20 eta halako foro plutokratikoak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira; hori ikusirik, uste dugu ezinbestekoa dela Nazio Batuek oinarriak mundu mailako proiektu adostu batean bilatzea eta proiektu horren bitartez pertsonen berdintasuna bermatzea planeta osasuntsu eta ingurune demokratiko batean.

UNESCOk ahalegin sendoak gidatu ditu, eta UNESCO Etxeak modu aktiboan parte hartu du bertan²; alabaina, ahalegin horiek gorabehera, Agenda onartzeko Batzar Orokorraren ebazpenaren arabera, kulturaren faktorea ez da iraunkortasunaren oinarri nagusietako bat. Aipatzen du eremu batzuetan kultur aniztasuna babestu beharra dagoela, baina kezkarria iruditzen zaigu kultura ez hartzea benetako garapen iraunkorra lortzeko eragile ezinbesteko gisa, ez eta elkarrizketa-esparru edo pertsonen eta kulturen topaleku gisa ere.

Halaber, hazkunde material eta ekonomikoarekin lotutako kontzeptu zahar batzuek hor jarraitzen dute oraindik, eta ez zaizkigu bateragarriak iruditzen benetan iraunkorra den garapen-eredu berriarekin. Akordioa ez da loteslea, eta horren aurrean ez da jarraipen-mekanismo argi, garden eta parte-hartzailerik ezartzen; hortaz, uste dugu asmo-adierazpen global bat baino ez dela.

Ahulgune eta kontraesan horiez jakitun gara, eta kezka sortzen digute, baina UNESCO Etxean uste dugu 2030 Agenda egiteko oinarriak unibertsalak, asmo handikoak eta eraldatzaileak direla, eta gizarte baketsu, inklusibo eta jasangarri bat lortzeko bide-orri bat direla. Ulertzen dugu gizarteko sektore batzuek, GGKEk eta gizarte-mugimendu batzuek Agenda honekiko duten errezeloa, eta ezinbestekotzat jotzen dugu eragile horiek

² Ikuspuntu berriak 2015 ondorengo Garapen Agendan, Adituen mintegia. 2013ko urriaren 23 eta 24an, Bilbon. UNESCO Etxea

ekarpenak egitea eta parte hartzea. Hori dela eta, Agenda berriro interpretatzea proposatzen dugu, asmo handiagoko erronkak hartzeko, ahulguneak indargune bihurtzeko eta horien gainean lan egin eta bertatik abiatuz eraikitzeko.

3. Erantzukizunez betetako agenda: erantzukizun partekatua baina berezia

2030 Agenda definitzea konplexua eta zaila izan da, eta abian jartzea ez da gutxiago izango. GIHak abian jartzeko, gizarte garatuenean berriro planteatu eta berriro behar dute hazkunderaren paradigma, giza garapenaren eredu berri bat bilatzeko. Une honetan gizadiak zer etorkizun³ nahi duen erabaki behar du, eta badakigu historian lehenengo aldiz atzera bueltarik ez duten gizarte- eta ingurumen-prozesuen aurrean gaudela.

Herrialde eta eskualde batzuek proposamen solido eta konprometituak dituzte 2030 Agendarako laguntza-mekanismoak ezartzeko, eta aurrera egiten ari dira, baina, oro har, erakunde erreferenteek, esaterako, erakundeek eta gobernuek ez dute estrategia praktikorik 2030 Agenda abiarazteko; alegia, ez dute, besteak beste, bide-orri argirik politika publikoak definitzeko eta GIHak lortzeko tresnak ezartzeko; oso urrun daude hortik.

Iruditzen zaigu aukera asko irekiko dizkigula egoera honek eta ezin dugula abagunea alferrik galdu. Foru- eta udal-legealdi berrietan zein Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren hurrengo legegintza-zikloetan GIHen agenda-prozesua instituzio maila guztietan eta modu koordinatu eta eraikitzailean jorratzeko aukera irekiko da. Uste dugu lan nekeza eta konplexua dela baina, era berean, oinarritzakoa eta saihetsezina dela bakearekin eta giza eskubideekin benetan inplikaturik dauden gizartearen eraldatze-prozesuan aurrera egiteko. Hortaz, oso garrantzitsua izango da herritarrengan eragitea erakunde politikoaren konpromisoa lortu nahi bada.

Agenda hau pertsonengan zentratuta egonik, uste dugu erakunde deszentralizatuek eginkizun garrantzitsua izango dutela Agendan; izan ere, udalerrietan (udalak) eta eskualdeetan (aldundiak eta autonomia-erkidegoak) erantzutea da modurik eraginkorrena gizartearen errealitatean eta beharretan eragiteko. Nazio Batuek beraiek onartu dute nazioarteko eta estatu azpiko gobernuen konpromisoa oso garrantzitsua dela 2030

³ Lurraren gutuna

Agendak arrakasta izan dezan⁴, eta egitasmo zehatzak abiarazten ari direla hainbat mailatako gobernuen esperientziak bateratzeko. Erakundeen sarea eguneratzeko gai izan behar dugu, gaur egun konpartimentuetan zatitutako eredu bertikal bati jarraitzen baitio, eta, hala, hainbat solaskideren arteko kooperazio-elkarrizketan oinarritutako sistema bat sustatu behar dugu. Uste dugu hori dela modu bakarra benetako justizia sozialerantz aurrera gitea eragozten diguten behar eta zailtasunak gainditzeko.

Hori dela eta, honako hau eskatzen dugu: Agenda berriari loturiko eskumenen maila kontuan hartuta eta euskal erakundeek giza garapen iraunkorraren sustapenean izan duten esku-hartzea gogoan izanda, datorren euskal legegaldian 2030aeko Agenda euskal politika publikoak garatzeko orduan gidari eta aurrerapausoak emateko tresna bilaka dadila, iraunkortasunaren aldeko apustu argi eta sendoa oinarri hartuta.

Badakigu erakunde publikoek lidergo argia dutela, eta ulertzen dugu oso zaila dela erakundeen barneko eta erakundeen arteko koordinazioa, ekintza eraldatzaileen sinergia bat ahalbidetuko duen ibilbide-orri bat sortzeko. Alabaina, badakigu Euskadin, euskal gizarte antolatua urteak daramatzala lanean sektoreen lehentasunak zeharkako lehentasun bilakatzeko; hona hemen hainbat adibide: ingurumena babesteko iraunkortasuna⁵, genero-berdintasuna edo garapenerako politiken koherentzia⁶. Uste dugu esperientzia horrek berebiziko garrantzia izango duela erakundeen eta gizartearen benetako kohesioa lortzeko eta bakean, errespetuan eta justizia sozialean oinarrituriko etorkizun iraunkorrago bat erdiesteko.⁷

Hala ere, hori erronka konplexua eta asmo handikoa da; ondorioz, orain inoiz baino gehiago, ezinbestekoa da gizarteko beste sektore batzuek izan dezaketan eta izan behar

⁴ United Nations Development Group (2015) Mainstreaming the 2030 Agenda for Sustainable Development. <https://undg.org/wp-content/uploads/2015/10/Mainstreaming-the-2030-Agenda-UNDG-Interim-Reference-Guide-to-UNCTs-7-October-2015.pdf>

⁵ Horien adibide dira honako programa hauek: Euskal Agenda 21, Garapen iraunkorraren EAEko ingurumen-estrategia (2002-2020) edo 2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategia.

⁶ Eusko Jaurlaritzak (2016) Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua http://www.elankidetzak.euskadi.eus/contenidos/informacion/coherencia_avcd/eu_def/adjuntos/Erreferentzia%20Esparrua%20CPD_EUS.pdf

⁷ Lehendakariaren hitzaldia, Ignacio Ellacuria sariaren banaketan. Gasteiz, 2016ko urtarrilak 26 www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7557/Discurso_LHDK_Premio_Ignacio_Ellacuria_26-01-2016.pdf?1454061289

duen eginkizuna aitortzea, nahiz eta horrek ez duen eragingo erakunde publikoen erantzukizuna murrizterik herritarren ongizatea sendotzeko eta bermatzeko garaian⁸; alderantziz, elkarlan horrek are gehiago sendotu litzake berme eraldatzaileak.

Euskal gizartean hainbat eragile daude Agendaren helburuei ekarpen handia egiteko gaitasunarekin, eragile bakoitzaren berezitasunetatik abiatuta. Gizarte zibileko erakundeok, hala garapenerako lankidetzaren arloko nola bestelako gizarte-mugimenduetan aritzen garenok, gai gara gobernuari aholkua emateko, ekarpenak egiteko eta, hala dagokionean, kontuak eskatzeko, gobernuak hartutako konpromisoak bete ditzaten.

Euskadiko enpresa-sarea askotarikoa da: mikro-enpresak, kooperatibak, enpresa sozialak, ETEak eta nazioarteko enpresak. Horiek guztiek ere parte hartu beharko dute partekatzen dugun erronka honetan. Hau primerako aukera da enpresek beren Enpresa Erantzukizun Sozialetik harago doan konpromiso bat har dezaten eta, konpromiso horren harira, enpresaren lan-ildoak, barne-politikak, hornikuntza-kateak eta berrikuntzarako eta sorkuntzarako gaitasuna eralda ditzaten, garapen iraunkorrak dakartzan erronken zerbitzura egon daitezten. Halaber, ezinbestekoa da zientziaren eta teknologiaren sektorearen aldeko apustua egitea; izan ere, sektore horrek mundu-mailako garapenaren arloko arazoak konpontzeko egin ditzakeen ekarpenak funtsezkoak dira Garapen Iraunkorreko Helburuak erdiesteko.

Azken batean, gizarte osoak hartu behar du parte esku artean dugun proiektu handi honetan, besteak beste honako arrazoi hauek direla eta: gure ongizatean izan dezakeen eragina, eragile gisa Agendaren helburuak lortzeko izan dezakegun garrantzia dela-eta, eta, beste gizarte batzuekin lankidetzan arituz garapen jasangarri eta iraunkorrean oinarritutako eredu bat eraiki dezakegulako.

4. 2030 Euskal Agenda sortzeko proposamena

UNESCO Etxeko kideon ustez, Garapen Iraunkorrerako Agendak euskal gizartea osatzen dugun guztioi dei egiten digu konpromisoa har dezagun eta elkarlanean jardun dezagun

⁸ MARTÍNEZ SOLIMÁN, Magdy (2016) Una nueva agenda de desarrollo: Los ODS como nuevo paradigma'. Gasteiz, 2016ko apirilak 20.
www.undp.org/content/undp/es/home/presscenter/speeches/2016/04/20/magdy-mart-nez-solim-n-una-nueva-agenda-de-desarrollo-los-ods-como-nuevo-paradigma.html

2030 Agenda antolatzeko eta, hala, GIHak erdiesteko, bai gure gizartean bai mundu-mailan.

Hau esaten da 2015etik aurrerako Garapenerako Agendari buruz pertsona gailenen goi-mailako taldeak emandako txostenean⁹: “Tokiko agintariek funtseko rola dute lehentasunak ezartzeko, planak gauzatzeko, emaitzen jarraipena egiteko eta tokiko komunitateekin eta enpresekin elkarlanean jarduteko”. Hori dela eta, estatu azpiko gobernuek berebiziko garrantzia izango dute mundu-mailako garapenerako agenda berrian. Zehazki, kontuan harturik zein diren Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen eskumenak 17 GIHei zuzenean eragiten dieten alorretan, 2030 Agenda adierazitako helburuak eta xedeak erdiesteko garrantzi handia izango dute agenda horretan ageri diren lehentasunak, beharrianak eta akordioak islatzen dituzten euskal estrategiek eta politikek

Esan bezala, dagoeneko aurrerapausoak eman ditugu garapen iraunkor eta inklusiboa helmuga dituen bidean; alabaina, asko dugu egiteko. Gure gizarteak hainbat kezka ditu: enpleguaren krisialdia, babes sozialaren falta, klima-aldaketa eta bioaniztasunaren galera¹⁰, besteak beste. Ikusten ari gara energia-pobretasunak¹¹ gora egiten jarraitzen duela eta gure aztarna ekologikoa, ia erdira jaitsi den arren, gure lurraldeak gure beharrak asetzeko duen gaitasunaren oso gaintetik dagoela oraindik ere¹².

Horregatik, eta kontuan izanik ezin direla ekintza publikoa eta eztabaida politikoa bereizi, alderdi politikoei dei egiten diegu ahalegin horren motor izan daitezen eta beren proposamenetan 2030 Agenda integra dezaten, bai eta legebiltzarretan garapen iraunkorra lehentasun politiko bilaka dezaten ere.

⁹ NACIONES UNIDAS (2015). Una Nueva Alianza Mundial: Erradicar la pobreza y transformar las economías a través del desarrollo sostenible. Informe del Grupo de Alto Nivel de Personas Eminentes sobre la Agenda de Desarrollo Post-2015. https://www.un.org/es/sg/pdf/hlp_report_post2015_sg.pdf

¹⁰ MARTÍNEZ SOLIMÁN, Magdy (2016) Una nueva agenda de desarrollo: Los ODS como nuevo paradigma'. Gasteiz, 2016ko apirilak 20. www.undp.org/content/undp/es/home/presscenter/speeches/2016/04/20/magdy-mart-nez-solim-n-una-nueva-agenda-de-desarrollo-los-ods-como-nuevo-paradigma.html

¹¹ ARARTEKOA (2016). Euskadiko energia-pobretasunari buruzko gizarte-eztabaidarako oinarriak. www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/3_3861_1.pdf

¹² ONAINDIA OLALDE, M., MADARIAGA GARAMENDI, I., PALACIOS AGUNDEZ, I., & ARANA BERASTEGI, X. (2015). *Natura eta ongizatea Bizkaian. Ekosistemen zerbitzuen ebaluazioa; ikerketa kudeaketan.* www.ehu.eus/cdsea/web/images/pdf/LibroReducido.pdf

Uste dugu 2030 Euskal Agendaren benetako balioaren muina parte-hartzailea izatean datzala; herritarren eta erakundeen beharrei erantzuna eman beharko die eta hala pertsonen nola sektore politikoaren konpromisoa eta laguntza izan beharko du. Hori dela eta, gizartearen esparru guztietako ordezkariak dituen plataforma bat sortzea proposatzen dugu. Plataforma horretan zehaztuko da 2030 Euskal Agenda, eta jarraipena ere egingo da. Hala eginez gero, geure egingo dugu “inor atzean ez uztearen” printzipioa.

5. UNESCO Etxea 2030 Agendarekin

Gure erakundeak 25 urte bete ditu Bakearen Kulturaren eta Giza Garapen Iraunkorraren alde lanean. Gaur, UNESCO Etxeko kideok berretsi egiten ditugu erakundea sortu zenean geure egin genituen balioak¹³. Ahaleginak egiten ditugu euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean harreman eraldatzaile bat sustatzeko; hori dela eta, uste dugu 2030 Agenda aukera eta erantzukizun paregabea dela pertsonetikiko zein planetarekiko arduratsua den gizarte demokratiko eta konprometitu bat eraikitzeko. Horregatik, Agenda hau hartzen dugu UNESCO Etxearen esparru orokor estrategiko gisa. Helburu hori erdiesteko, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren esku jarriko ditugu gure esperientzia, ezagutzak eta tokian tokiko zein nazioarteko lan-sareak. Horretarako, UNESCOren oinarri diren balio humanistak adieraztea eta ezagutaraztea ahalbidetzen duten teknologia berriak baliatuko ditugu.

Badakigu erronka hau handia dela tokian tokiko eta mundu-mailako errealitateak konplexuak baitira; hala ere, UNESCO Etxeak ahaleginak egingo ditu euskal gizartean funtsezkoak diren honako sektore hauekin konpromisoak eta elkarlana eratzeko: erakunde publikoak, sektore pribatua, hezkuntza-erakundeak eta elkarteak.

Halaber, ikerketarako, esku hartzeko, prestakuntzarako, berrikuntzarako eta hedapenerako ditugun tresnak erabiliko eta berrituko ditugu aurrerapausoak emateko tresnak, eztabaidarako guneak eta herritarren konpromisoa garatzeko. Modu aktiboan parte hartuko dugu 2030 Agenda ezartzeko, jarraipena egiteko eta indartzeko tokian tokiko zein nazioarteko ekimenetan eta saretan, eta arreta berezia jarriko diegu lurraldeek, gizarte zibilak eta enpresa pribatuek dituzten eginkizunei.

Badakigu Nazio Batuen sistema ahulduta eta higatuta dagoela hainbat esparrutan (baliabideetan, erabakiak hartzeko prozesuetan, prozesu demokratikoetan...); hala ere,

¹³ UNESCO Etxea. Misioa, ikuspegia eta balioak. (helbide honetan: www.unescoetxea.org)

alde anitzeko sistema demokratikoa premiaz sendotzen bada, egoerak eskatzen duen moduan, uste dugu gizarte zibilaren erakundeek funtsezko garrantzia dutela mundu osoa hartzen duen eta herritar guztien konpromisoa eta parte-hartzea dituen proiektu bat eraikitzeko, jarraipena egiteko eta esku-hartzeko lanetan. Ondorioz, dagokigun erantzukizuna hartzen dugu beste erakunde sozial batzuekin (euskaldunak, espainiarrak zein nazioartekoak) elkarlanean aritzeko eta hartutako konpromisoa mundu osoan errealitate bilakatzen dela bermatzeko.

Erakunde gisa konpromisoa hartzen dugu Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda errealitate bilakatzeko guri dagokigun ekarpena egiteko, hala Euskadin nola mundu osoan. Hala ere, horrez gain, azken 25 urteotan Agendan islatutako beste hainbat proiektu espezifikotan ere zuzenean esku hartu dugu, eta horiekin lanean jarraituko dugu. Hauek dira, besteak beste: ingurumen iraunkorra, hezkuntza, garapenerako kultura, kultur aniztasuna, bakearen kultura eta giza eskubideak.

Halaber, UNESCO Etxeak, Nazio Batuen sistemaren barnean, hezkuntza konprometitu eta gizatiarrago bat sustatzeak eta horren beharraren inguruan sentsibilizatzeak duen garrantzia nabarmentzen eta babesten jarraituko du, baita herritarren jakin-min intelektuala sustatzen ere; izan ere, elementu horiek funtsezko tresnak dira gizartea benetan eraldatzeko eta herritar kritiko, konprometitu eta parte-hartzaileak sortzeko¹⁴.

¹⁴ UNESCO (2015) Mundu osoko ongia lortzeko bidea? Hezkuntza berraztertzea.



Bilbon, 2016ko ekainaren 14an

Adierazpena ohorezko bazkide hauek sinatu dute:

Federico Mayor Zaragoza Jn.

Fèlix Martí Jn

Silvia Escobar And.

Ion de la Riva Jn

Carlos Fernández-Jauregui Jn

Juana Carro And.

Txomin Bereciartua Jn

Adierazpena izenpetu dute ohorezko bazkide hauek

Daniel Innerarity Jn

Joaquín Achúcarro Jn

José Antonio Ardanza Jn

UNESCO Etxearen ordezkariak

Guillermo Dorronsoro Jn

Arantzazu Acha And.